

HITZ BI ATARIAN

LANA

Lana da askatasunaren iturria eta sustraia. Lanak jasotzen du gizon-emakumea bere buruaren jabetasun eta inguruaren nagusitasunera. Lanarekin inguru aldatur dihoan ahala, gizartea aldarazten du: etxea, familia, lagunartea; eta poliki-poliki bere burua aldatzen du, askatzen du. Lanak askatzen gaitu beharraren menpetik.

Hala ere, guk lana esaten diogunari, bizkaieraz 'beharra' esaten diote. Halaxe izaten baita: beharrak ez bestek eraman ohi gaitu lanera. Horrek esan nahi du, gure lanak gaur, eta aspaldian, ez direla gure gustukoak. Artze poetak salatu zuen moduan: lana makina lana makina lana..., azkenean makina, edo makinaren morroi, bihurtzen da langilea bera. Gaztelaniazko 'trabajo' hitzari begiratzen badiogu, okerrago da: latin arrunteko 'tripalium'etik dator (hiru paldo edo hesola), eta bere jatorrizko adieran 'trabajo'ak (trabailuak) indarrez gogor mendean lotuta egotea esan gura zuen, eta, handik hara, geroago, torturatua izatea. Tripalioa zen halako tramankulu bat, hiruzpalau hesola handiren artean zaldiak eta abere handiak ondo lotuta geldi-geldi edukitzeke, perratzeko eta. Eta halatsu behartuak sentitzen ziren nonbait, euren lanari 'trabajo' esaten hasi ziren andre-gizonak.

Hitzen esanahiaren eboluzio horretan ikusten dena, askatasunaren eta beharraren arteko dialektika da. Ez da egia gizakia libre jaiotzen dela, eta gero esklabotu. Haurra ezertarako gauza ez dela etortzen da mundura, denaren beharrean. Batez ere bere burua norbera egin beharrean. Arkume batek bere burua ardi egitea ez bezala, haurrak bere burua gizon-emakume egitea, norbere askatasuna egitea da; hau da, norbere kontzientzia, erantzukizuna, norbere eginbeharra.

Lehen-gizakia han-hemen biltzen zituen fruitu, ale, ostoa eta belar, moxorro eta aberetxoetatik elikatu da, eta, biziraun ahal izateko, egun osoan janari bilketan aritu dira denak lanean edo beharrean, handi ala txiki. Egun osoan jateko beharrezkoaren bila ibili beharra duenak, astirik ez du bestetarako.

Duela berrogei mila urte inguru jadagoneko, lehen-gizakiok euren lana organizatzera ailegatuak zirela, ikusten dugu, taldetan banatuta. Sasoikoak ehiztariak ziren. Gaxteak eta ahulenak, eta emakumeak ere bai seguru asko (haurrak eta "sukaldea" begiratu behar zituztelako), inguruetako fruitu eta

nolanahiko jatekoen bilketariak izaten jarraitzen zuten. Harri zorrotzeko armak eta labanak ere jada ezagutzen baitzituzten, batzu-batzuk zeregin horretan espezialistak zirela, suposatu beharko dugu. Pentsatzekoa da, ehize handietarako behintzat, buruzagi modukoren bat eta diziplina minimo bat egon beharko zuela taldean, arriskuak ere gorriak baitziren. Eta antzeko hierarkia batek aginduko zuen apika, tiraniko samarra seguru asko, andre-gizon elkartuen familia handian. Lanaren antolaketaren inguruan joan da sortzen famili-gizartearen antolaketa.

Ehizakiak hezi eta etxetiartu, eta lehen-gizaki ehiztaria artzain bilakatu eta gero ere, gutxi-asko nomada izaten jarraitu du bere bizimoduan. Etxearen inportantzia nekazaritzarekin etorri da, gizon-emakumeari bizitzeko segurantzia bat emanez; hau da, piztien erasotik babesa eskainiz, eta ehiz eskasia edo urtaroen eta eguraldiaren menpetasunetik libratuz. Etxea eta familia zentralak bilakatu dira. Batez ere, gizakiak orain jatekoa bere kontrolpean dauka, berak zaintzen eta produzitzen du. Askatasun garrantzitsua baita hori. Premiazko janarien soberakin apurra hurrengo baterako gorde ahal izateak posible bihurtu du taldeko norbaitzuk lan berrietarako liberatzea: horrela gizakia historian zur eta buztzingintza, ehungintza, metalurgiako lanetan lehen urratsak ematen abiatu ahal izan da. Ofizio berriekin lanaren banaketa konplexuagoa bihurtu da, baina produkzioa erraztu da eta gehitu da, gizartea aberastu, eta taldearen egitura eraldatu, jendearen artean hartueman modu berriak sortuz.

Gero batean metalaren langileek kobrea eta brontzea funditzen asmatu dutelarik, lanerako nahiz gerrarako mila modutako erreminta harrigarriak lantzen ikasi du gizon-emakumeak. Lanerako erraztasun eta lanbideen askotasunak, jendearen artean produktuen eta zerbitzuen elkartrukea jeneralizatu du, eta ordura arteko tribu edo auzo txikien lekuan jendetza handiak elkartu ahal izan dira eta hiriak sortu. Hirien arteko harremanekin nabigazioa eta komertzioa bizkortu dira, eta ekonomia berriaren beharrek idazketa asmatzera eramanez, estreina biltegiko izakinen eta salerosketen kontaduria eramateko idazketa sinplea, gero testu beteagoak jasotzeko egokia. Idazketarekin zientziak jaio ahal izan dira: astronomia, medizina... Eta gizarte berriak eskatzen zuen legeria xehea puntuz-puntu finkatu da. Legeekin legearen begira-leak (poliziak, epaileak) eta ordena politikoa, elkarren errespetu asegaratuak esan nahi duen bake eta askatasunarekin.

Labur: lanak tankeratu du gizartea, gure harremanen moldea; lanak ekarri du zientzia, zibilizazioa, antolaketa politiko-soziala, gizartearen askatasuna behar gorrienen menpetik.

Lana ez da askatasuna, baina bai askatasunaren oinarria. Nola ulertu behar da hori, begien bistan baitago, askorentzat lana zama eta kate hutsa dela? Askatasuna oporrak dira...

Askatasuna norbere buruaren jabe eta nagusi izatea da, ez gogoia ematen digun bezala ibiltzea (kapritxoa). Gizon-emakumea bere buruaren jabe lanarekin eta lanean egiten da: hori ez da egia oraindik norbanako gehientzat, baina bai giza espezie edo gizajendearentzat bere osoan, giza komunitatearentzat. Historiari begiratzen badiogu, gizadiaren aurrerapena ekarri dutenak ez dira izan erregeak eta gerrak eta garaipen militarrek, langileen lana baizik. Gure egitekoa, gaur, lana, gizadiaren askatasunarentzat oinarria den bezala, bakoitzaren eta guztion askatasunarena ere izan dadila lortzea da, eta langileena eurena beste inorena baino lehen.

Gaur, hasteko, lana eskatu egin behar izaten da, ez da gurea. Eta langabezia bizitzako arrisku gaiztoenetakoa da.

Beti ez da horrela izan. Arantzazuko Ama Birjina aurkitu zen garaian, esate baterako, mendian, artzaina, laboraria, ikazkina, meatzaria, bere tresnen eta lanaren jabeak ziren; hirietan, eskulangileen gremioek, ermandade eta kofradietan elkartuak eta kale berean biziz askotan, kontrolatu egiten zuten zeinek zenbat produzitu: inork ezin zuen egin beste inor lanik gabe uzteko adina. Horrela denak euren lanaren jabeak ziren. Eta, denak pobregoak baziren, euren lanetik bizitzeko adina denek aseguratua zuten. Mundura etorri eta norbaitek bizi ahal izateko lanik ez edukitzea, lana eskatu egin behar izatea, hori aski modernoa da. Lanaren historiako fase kapitalistak ekarri du, onura asko bezala kalamitateak ere asko zor baitizkiogu horri.

Amerikaren aurkikuntzarekin, gazteen emigrazio uholdeak, mertzenaritzak, komertzioak, itsasoko eta administrazioeko enpleguek etxetik urruti, langizarte tradizionalaren egitura zeharo ahuldu dute. Ameriketatik etorritako urrea laster hasi da lurak eta baserriak erosten eta lanbide kaletarretako ola eta tresnez jabetzen. Baserritarra bere etxean maizter bihurtu da, kaletarra bere lantegian langabekoa, besteren morroi.

Laster, diruak eta aurrerapen teknikoen aplikazioak produktiori bizitza ekonomikoa sakonki aldarazi dute mendian hala kalean. Orain bizitza sozialaren zentroa fabrika da. Lana eta langileak etxetik eta familiarik fabriketara eramanez izan dira, hau da, eurena ez den leku arrotz batera, nagusi arrotz baten makinaz beteriko egillor batean, eurena ez den lan bat egiten, egun osoa emateko. Mekanizazioaren azkartzearekin langilea, lehenengo nagusiaren morroia, azkenean makinaren morroi soila izatera etorri da.

Globalizazioa prozesu honen azkeneko kapitulua baino ez da. Kapitalismoa sistema ekonomiko bezala beti izan da globala. Globalizazioaren azpian dagoen printzipioa, horregatik, ez da ezer berria, kapitalismoaren betikoa baizik: gizakia eta lanaren lehentasunaren orde, dirua eta merkatuaren lehentasunaren printzipioa. Kapitalismorentzat langilea ez da pertsona. Sistema horretan, izan ere, dena dirutan neurtzen da, dena merkatuan erabakitzen da, dena merkaduria da: langilea eta haren lan-indarra beste merkadurien artean merkaduria bat gehiago da, salerosmentan dago. Eta langilea non merkeago egon, han erosten du diruak (kapitalak) lan-indarra.

Kondizio horietan lana ez da gizon-emakumeen gehiengoaren askatasunaren oinarria. Eta bitartean, demokrazia asko aipatzen bada ere, kapitalaren esku dago ea ematen digun, zenbat ematen edo ukatzen digun, eta noiz, lana bezalaxe, askatasun politikoa eta soziala ere. Denak bat egiten du.

Beraz: **“Langileok, geurea defenda dezagun indartsu!”**, esan behar Irigorasekin.



Joxe Asurmendi